

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## San Juan jaietarako prest

Ekainaren 22an hasi eta 26ra arte, Andoain herria jaietan murgilduko da. Informazio osoa eskura, Aiurri astekarian

## Sorginen Akelarrea Urnietan

Azken urteotako joerari eutsiz, suaren inguruko ospakizun dotorea antolatzen dute Urnietan. Perkusioa, dantza, antzerkia eta musika gaueko 22:00tan hasita / 3



"Ez utzi dantzatzeari" ikuskizun ederra eskaini zuen Egape dantza taldeak / 2

Andoingo Udalak ekainaren 22tik 24ra herri barruko bus zerbitzu berezia eskainiko du, gauerdian hasita / 7



Gatillazo, Skakeitan, Doctor Deseo edota Tio Teronen semeak Andoingo San Juan jaietan arituko dira / 8

San Juan bezperako sua, tradizio handiko ospakizuna herri guztietan / 3, 9, 16

# GOIBURU GOLF CLUB



- Jatetxea
- Udako Ludoteka
- Golf zuretzat

JAIETAN ONDO PASA



Informa zaitez: 943300845 - Andoain

# Ez utzi bikain dantzatzeari

Beste behin ere, Egape dantza taldeko helduenek aho bete hortz utzi zuten ikuslegoa. Dinamika handiko saio zirrargarria eskaini zuten joan zen ostiral gauean, udako edozein jaietan arrakasta handiz eskaini daitekeen ikuskizunaren parekoa

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Oporraldiaren atarian eta San Juan bezperako ospakizunen atarian, uda ate joka dago. Giro horretan, Egape dantza taldeak Urnieta dantzan ipini zuen joan zen asteburuan "Ez utzi dantzatzeari" eta "Koloredantz" ikuskizunak taularatuz. Bereziki aipagarria izan zen ostiral gaueko emanaldia, zeinean adinean gora doazen gazteek euren artearen erakustaldia egin zuten. Azken egunetan serio demonio aritu ziren Sarobeko entselekuan murgilduta herritarren aurrean ahalik eta dantza saio onena egin asmoz. Ez dakigu euren aurreikuspenak bete ziren, baina ikuslegoa behintzat bereganatzea lortu zuten. Emanaldi bizia, zirrargarria eskaini zuten. Ia ordubeteko saioan, bata bestearen atzetik koreografia ikusgarriak eskaini zituzten. Dantza garaikidea eta tradizionala uztartuz, Edu Muruamendiaren eta taula gainera igo ziren neska-mutilak artista hutsak dira. Jendetza batu zen, eta horren aurrean kokildu beharrean, hazi egin ziren. Seguritasun handia erakutsi zuten. Ikuskizuna gogotik txalotu daiteke edozein herriko jaietan. Isil isil ekin zioten emanaldiari, soilik dantzarien hanken mugimenduen hotsak entzuten zirelarik. Saioa *in crescendo* joan zen, azken txanpara txalo zaparrada jasoz iritsi zirelarik. Egapekook, ez utzi dantzatzeari!



Gaueko unerik txalotuenetakoa izan zen ikuslegoaren artetik Maialen Izagirre trikitilaria agertu zenekoa. Aurrean du lanire Senperena. ALMU SALAS

## Saio ikusgarria Udal pilotalekuan



Dantzariak erdigunean jarrita, ikusleak albo guztietan zituzten. AIURRI

**Jendetza** San Juan plazan iragarrita zegoen emanaldia, baina euri kontuak direla eta Udal pilotalekuan egin behar izan zuten. Ikusleek sartzean, bi foko eta dantzarietako zoru urdina topatu zuten. Hura inguratuz dozenaka lagun elkartu ziren.



Garazi Usabiaga dantzaria, edalontzia eskuan. AIURRI

**Bizi-bizia** Hasieratik amaieraraino etenaldirik gabeko ikuskizuna eskaini zuten. Fisikoki lan handia egitea eskatzen duen emanaldi horietakoa izan zen. Ikusleentzat berrogei ta bost minutuko gozamen hutsa izan zen.



Edu Muruamendiaren gidaritzapean saio ikusgarria eskaini zuten. AIURRI

**Dantzariak** Leire Erasun, Karmele Lekuona, Ioritz Lizeaga, Eider Manterola, Leire Moreiro, Enara Pellejero, Alba Quel, Uxue Sanchez, lanire Senperena, Garazi Urdangarin, Garazi Usabiaga. Trikitilaria: Maialen Izagirre.



KAFETEGI - OKINDEGIA

Maximo Yurramendi, 2-behea  
URNIETA - 635 698 272

# Sorginen gaua Urnietan, San Juan bezperan

San Juan bezperan, udako solstizioari ongi etorria ematen diote Plazido Muxikan antolatzen duten Akelarrearen ikuskizunarekin. Elkarlanean, herriko eragileek musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen ospakizun jendetsua antolatzea lortzen dute

## Erredakzioa URNIETA

Buruntzantzan perkusio taldeak, Urnietako sorginek eta Txanbolin taldeko txistulariek Urnietako San Juan bezperako gaua majikoa bilakatzea lortu dute. Aurreko urteetako ikuskizun paregabea errepikatzeke moduan daude, urtez urte doituz eta aberastuz doana. Gutxi-asko urnietar gehienek jakin badakite zein den dinamika. Dantzarekin eta perkusio doinuekin abiatuko da gaualdia, gaueko 22:00etan San Juan plazan eskainiko duten lehen piezarekin. Handik kalejiran abiatuko dira, Plazido Muxikara iritsi bitarte, dantza saio ezberdinak eskainiz.

Plazido Muxika plazara iristeko jendetsa izaten da zain. Bertan dantzari txikiek, gazteek eta helduek pieza bana eskainiko dute. Eta jarraian antzezlanari hasiera emango diote. Tarte horretatik aurrera Mikel Laboaren "Baga, biga, higa" kantu ezaguna Urnietako Akelarrearen soinua banda bilakatzen da. Plazako txoko ezberdinetatik iritsiko dira perkusio joleak, sorginak eta dantza saio ikusgarria eskaintzen duten Aker eta Mari pertsonaia mitologikoak. Aurtengoan, berrikuntza modura, Mari Sugar suge mitologikoaren gainean agertuko da plazara. Ikusgarria izango da.

## Erratzez osaturiko arkuak San Jua pizteko

Azken dantza saio ikusgarri horretan sorgin guztiak lurrean etzanda geratu ohi dira. Aurtengoan, ordea, ikuskizuna zertxobait luzatuko da. Sorginak zutitu eta erratzekin San Juan sua dagoen tokiraino arkuak egiten jarriko dira. Bertatik igaroko dira Aker, Mari eta Denda Berriko lehendakari berria. Hark, tradizioari eutsiz, piztuko du San Juan sua.

Garrak abiada bizian indarra eta altuera hartzen ari diren bitartean, Txanbolin taldeko txistulariek musika egiten jarraituko dute.



Antzerkia, perkusioa eta dantza emanaldia amaituta, Plazido Muxika plazan sua pizten dute txistulariek zuzeneko emanaldia eskaintzen duten bitartean. ALMU SALAS

**Gure enpresak ziurtatu, gure etorkizuna bermatzeko.**

Enpresetan zibersegurtasunaren desafiari aurre egiteko lanean ari gara, Gipuzkoa izan dadin lurralde lehiakor bat, Europar desberdintasun txikiena duen lurraldeetako bat.

**ZIUR**  
INDUSTRIAL CYBER SECURITY CENTER-GIPUZKOA

**ETORKIZUNA ERAIKIZ**

# Jauregiren garaipena

Nekez pentsatuko zuen Ainhoa Jauregik urte batzuk pasa eta gero berriro beste lasterketa bat irabaziko zuenik. Larunbatean lortu zuen, Arbizuko lasterketan

**Andoni Urbistondo** URNIETA

2015ean lortu zuen azken aurreko garaipena. Azkena pasa den larunbatean lortu baitzuen Arbizuko lasterketan (19 kilometro). Hiru haur eduki eta hezi ostean, Intza txikienak 16 hilabete dituela lortu du sasoi puntu ona Jauregik, eta txapela lortu izanak poz handia eman dio. Jokin Lizeaga bikotearen lesioa baliatu du Ainhoak, hilabete eta erdiko entrenamendu onak egiteko, eta lan horren emaitza Arbizun gauzatu da. Dena den, ez zeukan garbi garaipenaren jokoan sartzeko moduan egongo zenik: "Ez nekien erritmo jakin batzuetan irauin ahal izango nuen, ezta oraingo sasoi puntua irabazteko nahikoa izango ote zenik ere. Emakume asko ari dira lehiatzen egun, eta egungo egoera eta duela urte batzuk zegoena ezberdina da".

Bigarren mailako lasterketak osatzen hasi zuen bidea Ainhoak aste batzuk atzera eta pixkanaka lasterketetako buruan ikusi zen. Horrek konfiantza eman dio lanean jarraitzeko, baina badaki, era berean, exigentzia murrizteko unea iritsiko zaiola, Jokin bikotea entrenatzen hasten denean: "moldatu egin behar du guzuzen berriro biok, nor entrenatu, nor geratu hurrekin eta beste". Arbizuko garaipenak espero ez zuen bultzadaxoa eman dio: "Hiru ume eduki eta gero txapela janztea ez nuen espero.



Ezkurdia pilotariaren eskutik jantzi zuen irabazleari dagokion txapela.

19.5 kilometro izan ziren Arbizun, Beriainera igo, azken 6 kilometroak pista zatar batean... tarte horretan nire azken urteetako ibilbidea egin nuen. Lasterketako une horiek, pertsonalki, oso politak izan ziren niretzat".

## Tolosako T3T proba

Maratoian hamar lagunek lortu zuten helmugaratzea, eta Igor Amantegi izan zen azkarrena, 6. postuan. Maratoi erdiari dagokionez, herriko hiru korrikalarik gurutzatu zuten helmuga.

## Tolosaldeko mendi lasterketa

Urnietarren parte hartzea ez da eskasa izan.

### T3T mendi lasterketa

42,7 Km. 2018-6-17.

- **4:35:14** Igor Amantegi.
- **5:43:42** Asier Iparragirre.
- **5:46:21** Imanol Garcia.
- **5:50:46** Iñaki Narbarte.
- **5:53:21** Igor Aldasoro.
- **6:07:03** Egoitz Moreno.

- **6:10:09** Igor Ruiz.
- **6:42:56** Mikel Etchezarreta.
- **6:46:52** Iñaki Baños.
- **6:49:38** Adrian Garcia.
- **7:51:38** Jose Luis Lopez.

### T2T mendi lasterketa

24,5 Km. 2018-6-17.

- **3:10:27** Jon Morandeira.
- **3:18:50** Eñaut Ayerza.
- **3:26:51** Jon Iraola.

## ZORION AGURRAK



**ANDOAIN**  
**Aritz**  
Aritz Irazu Romanek  
ekainaren 29an  
5 urte beteko ditu.  
Muxu handiak  
etxeko txikiari.



**ANDOAIN**  
**Iosu**  
Iosu Guirado  
Alkortak ekainaren  
20an 3 urte bete  
zituen. Hiru muxu  
erraldoi! Etxekoak.



**URNIETA**  
**Uxue eta Maren**  
Orain dela urtebete iritsi zineten gure bizitzara eta geroztik benetako maitasuna zer den erakutsi diguzue. Zorionak bihotz-bihotzez. Aitatxo, amatxo, izeba Ane eta aitona-amonon partetik.

## Nestor Orozko 2. mailako Zaragoza taldean arituko da

Espainiako bigarren mailako futbol ligan prestatzaile lanetan arituko da, Imanol Idiakezen aginduetara

**Erredakzioa** ANDOAIN

Urnietarrek badaki non egingo duen lana 2018/2019 denboraldian. Astelehenean jakin zen Idiakezek Zaragoza taldearekin akordioa lortu zuela, eta harekin elkarlanean jarraituko du Orozko. Adostasuna urtebeterako da, eta bigarren urtea aukeran,

bi aldeek hala adosten badute. Idiakez eta Orozko Zipreko AEK Larnaca taldean aritu ziren pasa den denboraldian. Zaragoza Lehen Mailara igotzeko play-offean aritu da orain gutxi arte, eta biek badakite hurrengo denboraldian ere Lehen Mailara igotzea izango dela erronka.



AIURRI

**HOTEL**  
**HK10**  
**HOTEIA**

Terraza eta  
parrillaren  
irekiera

**Hotel K10**  
943 337 357  
info@hotelk10.com  
Erratzu Ind. Urnieta

## Azkonobietatik Asteasura

Joan zen igandean Urnietan Gipuzkoako sega txapelketako aurre kanporaketa jokatu zen eta bertan Julen Gabirondok finalean aritzeko txartela eskuratu zuen. Bigarren txandan aritzea egokitu zitzaion urnietarri. Txapela jokoan izango da Asteasun, datorren uztailaren 8an.



Jaietako ia protagonista guztiak elkartu ziren Goikoplazan, aurtengo Sanjuanak iragartzeko bideoaren grabaketarako. Argazkian Udal ordezkariek eta hainbat talde eragileetako ordezkariek ageri dira.

# Dantza bidezko gonbidapena

Urki dantza taldea izango da aurtengo pregoilaria, sortu zeneko 30. urteurrena ospatzen ari direnean. Dantza taldeari keinu eginez, Andoaingo Udalak herriko eragile ugari dantzan agertzen diren bideoa zabaldu du. Arrakasta handiarekin, gainera

## Erredakzioa ANDOAIN

Agerraldi bateratua, jendetsua ikus daiteke artikuluekin batera datorren argazki handian. Jai Batzordeak lortu du azken urteetan identifikazio komuna garatzea, herriarekiko atxekimendua indartzeko garrantzia handikoa dena. Ostiralean hasiko dira jaiak Andoainen. Eguraldiak laguntzen badu, bost egunetan zehar iragarritako hitzorduei bere horretan eusten bazaie, bat eginda dagoen herri irudi hori indartuta aterako da ekainaren 27an.

## Bisitaldi ugari lehen orduetan

"Sanjuanetan denok dantzan!" goiburu duen bideoa Urkiko dantzariek hasi eta dozenaka herri eragile agertzen den plano zabalarekin amaitzen da. Tartean, Andoaingo ereserkiaren doinupean, herrigune osoan zehar grabatutako hainbat irudi. Eta bertan ageri dira buruhandiak, Axeri dantzako kideak, pilota eskolako kideak, etab.



Sanjuanetan denok dantzan! bideoa ikusteko QR kodigoa.

Zatoz jaietan!

**AKER BELTZ**  
TABERNA



Nafarroa plaza, 1B  
ANDOAIN. 943 300 846

Ondo pasa festetan!



Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza irlikoa: Cambridgeko azterketak onainean eta azallean.

2018-19 matrikularioa rabalik.

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839  
[www.andoainenglish.com](http://www.andoainenglish.com)

# Aitzol Atutxa Goikoplazan

Aitzol Atutxa edota Donato Larretxea izen handiko kirolariak hurbilduko dira Andoaingo jaietako herri kirol erakustaldira. Sokatiran, munduko txapelketan domina lortutako emakumezkoak ikusteko aukera izango da

## Erredakzioa ANDOAIN

Ikusgarritasun handikoa izango da aurtengo herri kirol txapelketa. Emakumezkoen parte hartzea nabarmendu behar da, gainera. Izan ere, munduko txapelketan lehen postuetan ibilitako tiralari bikaitarrak eta gipuzkoarrak elkarren aurka arituko dira.

Aizkoran, Aitzol Atutxak ekainean erakutsi duen maila on hori Andoainean ikusi ahal izango da. Eskarmentu handiko Donato Larretxea ere aski ez-guna da herri kirol zaletuentzat. Emakumezkoetan Sorondo beratarra eta Etxaburua tolosarra nor baino nor lehiatuko dira.

Zarautz aldetik dator, bestalde, Lopategi "Urra" harri jasotzailea.

## Ekainak 24, igandea 18:00 Goikoplaza

- Aizkora, trontza, korrika: Jozean Etxeberria, Donato Larretxea / Aratz Mugerza, Aitzol Atutxa.
- Aizkoran: Nerea Sorondo / Alazne Etxaburua.
- Emakumezkoen sokatira: Gaztedi - Laukiz / Ibarra.
- Harrijasotzen: Mikel Lopategi.



Aitzol Atutxa kirolari bizkaitarra igande arratsaldean Goikoplazan izango da. AIURRI

## Iturzaeta gogoan Arrate pilotalekuan

Ostiral honetan, iluntzeko 20:00tan hasita, Iturzaeta memorialaren finalak jokatuko dira. Jaialdi berean, profesional mailako pala jokalariek erakustaldia eskainiko dute.

## Kirol jarduerak jaien atarian



Iturzaeta pala txapelketako finalak jokatzen diren larunbatean. AIURRI

**Pala** Alaine-Rakel bikoteak 25-24 irabazi zion Irati-Itxasne bikoteari, final estuan. Beste finalean, partida gogorrean, Ander-Julen anaiak garaile izan ziren Mateo-Aritz 25-19 garaitu ostean. Afaria jokoan zen apustuan Corrochano-Arizaga bikotea nagusitu zen, Garmendia-Dani mendean hartuta.



Tlalaka eta Keler taldeak, aurtengo finalistak. Tlalakak irabazi zuen. AIURRI

**Areto futbola** Tlalaka tabernak irabazi du Andoaingo aurtengo txapelketa, Keler taldea 7-1 mendean hartuta. Gol guztiak ikusgai daude [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) webgunean eskegitako bideoan. Akerbeltz tabernak hirugarren postua lortu zuen, DAD Kutxari 6-2 irabazi eta gero. Irunberri eta Gonzalo akademiak kontsolaziozko finala jokatuz, eta lehenengoa 3-2 irten zen garaile. Sari ugari banatu zituzten hiru partidak amaitu ostean, Allurralde kiroldegian.

# Eskelak Aiurrin: 90 euro

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona  
Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ /  
Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak  
Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ /  
Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

ESKERTZA

Maria Antonia  
Ulanga Egues

(Carlos Arancetaren alarguna)

Ekainaren 18an hil zen, 65 urte zituela



Zure seme Xabiren  
Lanbroako lankideok  
ez zaitugu sekula ahaztuko

Andoainean, 2018ko ekainaren 21ean.

# 'Ez ezetz da' kanpaina

Andoaingo Udaleko berdintasun sailak Santa Krutz jaietan abiatutako kanpaina herriko jai guztietara zabalduko du, Sanjuanetatik hasi eta Sorabillako jaietaraino



'Ez ezetz da' afitxak kalez kale eta farolatan ikus daitezke herrigunean.

## Erredakzioa ANDOAIN

Santa Krutz jaietan egin bezala, Andoaingo Udalak eraso sexistak saihesteko sentsibilizazio kanpainari ekin dio. Jai eremuko taberna eta kafetegietan kartelak eta pegatinak banatu ditu. Zabaldu duen informazioan "Zer egin eraso sexista baten aurrean" izeneko gida agertzen da, udaltzaingoaren edota larrialdi zerbitzuen telefono zenbaki ezber-

dinei aipamena eginez. Bertan, besteak beste, honakoa adierazten da: "Ez utzi erasotutako emakumea bakarrik eta, beharrezkoa izanez gero, lagundu dagokion tokira".

Telefono zenbaki eta ohar horiez gain, "Ez da ezetz" goiburua duten kartelak ipini dituzte jai eremuko plaza eta kaleetan. Musika emanaldietan ere lema berdina irakur ahal izango da,

kontzertuetarako propio ekoiztu duten pankarta handiaren bitartez.

## Kanpaina jai guztietan

Berdintasun saileko aurtengo lan ildo nagusietakoa eraso sexistei aurre egitea izan da. Andoaingo jai nagusietan ez ezik, kanpainari udako gainerako auzoko jaietan jarraipena eman nahi diote. Kaletxikitik hasita.



Hiribus zerbitzua 00:00 eta 03:30 artean ibiliko da hilaren 22an eta 23an.

## Gaueko autobus zerbitzua, jai eremutik auzo ezberdinetaraino

Ekainaren 22an, 23an eta 24an gauerdian hasiko diren zerbitzu bereziak eskainiko ditu Hiribus bus zerbitzuak

## Erredakzioa ANDOAIN

Auzo herria da Andoain. San Juan jaietan askotxo dira Karrikatik, Leizotzetik edota Calongetik jai eremura hurbiltzen diren bizilagunak. Familiak, adinekoak eta gazteak kontutan harturik, Andoaingo Udalak gaueko Hiribus zerbitzu berezia egokituko du. 0,60 euro ordainduta, udaletxe atzealdeko bus geltokitik herriguneko ia txoko guztietara joateko aukera izango da ekainaren 22tik 24ra, gauerdian hasita. Bi ibilbide eskainiko dituzte, herrigune osoko auzuneak kontutan hartuz.

Autobusa bete ahala irtengo da geltokitik, eta ohiko geldialdietan edo eskatutako lekuetan egingo ditu geldialdiak. Ekainaren 22an eta 23an gauerditik 03:30ak arte martxan izango da Hiribus berezia, eta 24an 01:30ak arte. Udalak ohar bidez ekimena martxan jartzeko helburuak aipatu ditu: "herritarren segurtasuna bermatzea, festetan etxean geratzeko aitzakiarik ez izatea eta kotxeen erabilera saihestea. Neurri honekin espero dugu herritarrek, eta, batez ere, gazteek, jaiak lasaitasunez gozatzea".



# SAN JUAN JAIK ANDOAINEN

## EKAINAK 22

### OSTIRALA

- 17:30** Ping pong txapelketa Agustin Leitza plazan.
- 18:15** Kartel lehiaketako sari banaketa Uriginen.
- 18:30** Buruhandiak eta erraldoiak, trikitilariak eta txistulariak kalejiran Goikoplazaraino.
- 19:00** Urkiren pregoia Udaletxeko balkoitik. Txupinazoa eta Andoaingo ereserkia Musika Eskolako bandarekin.
- 20:00** Udal Musika eskolako banda eta Olagain txistulari taldea Goikoplazan.

- 20:00** Pilota partidak Arraten: Iturzaeta finala eta pala jaialdia.
- 22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:45** Tio Teronen semeak: Festamentua ikuskizun berria Goikoplazan.
- 23:15** Joseba & Bakartxo dantza eskola Goikoplazan: tangoa, salsa, funky, hip-hop... Euriarekin La Salleko jolastoki estalian.
- 23:30-03:00** Gatillazo eta Skakeitan Nafarroa plazan.
- 00:00-03:30** Gautxoria bus zerbitzua berezia, herrigune osora. Irteera: Udaletxe atzealdeko bus geltokia.

## EKAINAK 23

### LARUNBATA

- 09:00-15:00** Colombaire usakume tiroketa Pagamendin.
- 10:30** Umeen eskuzko finalak Arrate frontoian.
- 11:00-13:00** Xake partidak Goikoplazan. Euriarekin San Martin elizaren arkupeetan.
- 12:15** Patata tortilla lehiaketa. Sari banaketa ekitaldia Goikoplazan. Lehiaketako parte hartzaileek 11:00etik 11:30era eraman behar dituzte tortillak.
- 12:30** Ardo dastaketa eta patata tortilla pintxoak Goikoplazan, 5 eurotan. Euriarekin San Martin elizaren arkupeetan.
- 12:30** Kantu kalejira Maizorri txalaparta eskolako txalapartariak lagunduta. Abiapuntua: Goikoplaza.

- 14:00** Txuleta jana Goikoplazan. Euriarekin La Salleko jolastoki estalian. Ondoren, kalejira.
- 16:00** Palako eta zestako gazteen finalak, zestako nagusien finalak Arrate frontoian.
- 18:00** Bizikleta festa Goikoplazan, 2-12 urte artekoentzat. Euriarekin Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.
- 18:00** Bikoteen kross mistoa. Goikoplazatik Pio Barojaraino, 5 kilometroko ibilbidea.
- 19:00** Andoaindarra elkarteko danborradaren irteera, elkartetik bertatik.
- 19:15** Alberto Agirre abesbatza eta Udal musika eskolako abesbatzen kontzertua San Martin elizan.
- 20:00** Salbe gorena San Martin elizan, Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzaren eskutik.

- 20:15** Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.
- 21:30** Musika auzoetan barrera: Banda (Goiburu, Olagain, Plazola, Goikoplaza), Olagain banda (Etxeberrieta, Zumea, Nagusia, Goikoplaza) eta Gora Kaletxiki (Erroitz, Arantzibia, Kaletxiki, Buruntza, Goikoplaza).
- 22:30** San Juan sua: Suziria, txalapartariak eta kanpai-errepika. Alberto Agirre eta Udal Musika abesbatzak, Musika eskolako banda, Olagain, Soinuak eta Urki.
- 22:45** Agustin Leitza elkarteen danborrada.
- 23:30-01:00** Trio Medianocheren dantzaldia Goikoplazan
- 23:15-03:00** Dukha eta Doctor Deseo Nafarroa plazan.
- 00:00-03:30** Gautxoria bus zerbitzua berezia, herrigune osora. Irteera: Udaletxe atzealdeko bus geltokia.



**AITA LARRAMENDI IKASTOLA**

Txistoki pasealekua, z/g  
20140 - Andoain  
Tel.: 943 593 525  
andoain@ikastola.eus  
www.andoainikastola.eus



**IKASTOLEN ELKARTEA**

**JAIETAN  
ERE  
EKIN  
EUSKARAZ**



**San Joan jai zoriotsuak opa dizkizuegu**



- Kafetegia
- Ogitartekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak
- Pizzak

**Irailetik ekainera,  
ostiral gauetan  
mus txapelketa  
egiten dugu** 

**Berezitasuna:  
Torreznoak**



**Gora Sanjuanak**

**Tel.: 943 300 603 Goikoplaza, 6-7 - Andoain**

**Etxeko obradorea:  
pastelak,  
pastak,  
ogi bereziak...**



**Ondo pasa Andoaingo eta Asteasuko festetan!**



**arruti**



**Zumea 18, 943 593 777 - ANDOAIN**  
arrutigozotegia@hotmail.com





**EKAINAK 24****IGANDEA****10:30-14:00 / 17:00-20:30**

Artisautza eta janari azoka Goikoplazan. 'Munduko zaporeak' herrikideek egindako munduko jakiak dastatzeko aukera izango da. Horrez gain, Lazkaoko talogileak. Euriarekin Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

**11:00** Meza nagusia San Martin elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin.

**12:00** Axeri dantza, saio nagusia Goikoplazan.

**13:15** Kontzejupeko pilota txapelketa udaletxe azpiko arkupeetan.

**16:00** Jubenil mailako Gipuzkoako txirriindulartza itzuliaren irteera Goikoplazatik. 18:15etan helmuga Plazaola kalean.

**18:00** Herri kirolak Goikoplazan. Aizkora, trontza, sokatira edota harria jasotzea Euskal Herri osoko ordezkariarekin.

**18:15-22:30** DJ Bull Bastero plazatik Nafarroa plazara. Ondoren Tximeleta taldea.

**19:00** Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak Erretore-etxeko belardian. Euriarekin Makaldegiko estalpean.

**19:30** Bertsolari jaialdia Goikoplazan: M.Lujanbio, A.Mendiluze, S.Colina, A.Arzallus, I.Elortza eta O.Iguaran. Gaijartzailea: I.Beloki. Bertso eskolako haurrak puntuak jartzen. Euriarekin La Salleko jolastoki estalian.

**22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.

**22:45** Tximeleta Nafarroa Plazan.

**00:00-01:30** Gautxoria bus zerbitzua berezia, herrigune osora. Irteera: Udaletxe atzealdeko bus geltokia.

**EKAINAK 25****ASTELEHENA**

**11:00** Toka lehiaketa Goikoplazan. Hiru maila: Emakumeak, gizonak eta 12 urte bitarteko haurrak. Izen-ematea 10:30etik aurrera.

**11:30-13:30/17:00-19:30** Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea... Euriarekin Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

**12:00** Udal Musika Eskolako ikasleen Mugaz eta Azelain ballet elkartearen musika eta dantza emanaldia Goikoplazan. Euriarekin La Salleko jolastoki estalian.

**13:00** Kontu kantari haur ikuskizuna Erretore etxeko belardian. Euriarekin Makaldegiko estalpean.

**17:00** Trivialen moduko galdera jolasa Goikoplazan, 7-11 eta 12-14 bitarteko haur eta gaztetxoentzat. Euriarekin Makaldegiko estalpean.

**18:30** Gora Kaletxiki txarangaren emanaldia Juanita Alkain plazatik abiatuta. Ibilbidea: Kale Nagusia, Dr. Huitzi, Rikardo Arregi, Nafarroa plaza eta Pio Baroja kalea.

**18:45** Udal musika eskolako konbo gaztea eta Fino's band zuzenean Goikoplazan. Jarraian dantzaldi-erromeria Laket taldearekin, Andoaingo hainbat musikariren parte hartzearekin.

**22:00** Urki dantza taldearen 30. urteurreneko emanaldi berezia Goikoplazan.

**23:15** Deabru Beltzak taldearen 'Tambours de feu' ikuskizun ibiltaria Goikoplazatik hasita: Zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziak.

**EKAINAK 26****ASTEARTEA**

**11:00-13:00** Jolasak egurrezko joku erraldoiekin, Goikoplazan. Euriarekin Makaldegiko estalpean.

**13:30** Agintarien harrera laurogei urteko aiton-amonei, udaletxe aurrean. Ondoren, bazkaria Basteron.

**18:00** Haur danborrada ikastetxeetako ikasleen eskutik, Zumea plazatik Goikoplazara.

**19:30** Dantza saioa Goikoplazan: funky emanaldia (La Salle Berrozpe, Klaap), Zumbaton (Zuena). Euriarekin Berrozpe ikastetxeko jolastoki estalian.

**21:00** Triana taldearen dantza emanaldia Goikoplazan.

**22:30** Cavaldeath pirotekniazko ikuskizuna, Juanita Alkain plazatik abiatuta.



**MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK**  
**MAPFRE**  
ANDOAIN

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8. ANDOAIN. 943 592 307. Faxes: 943 300 161. imujika@mapfre.com



Gora Sanjuanak!  
**Aterpe**

Goikoplaza, 7 Andoain. 943 117 986, 672 725 978



Gora Andoaingo jaiak!

li

Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia 6 Andoain  
Tel. 943 59 12 24



**EKAINAREN 15 ETIK UZTAILAREN 31 ERA AURREZTU ANDOAINEN EROSIZ**

Andoaingo Udalak, Andoaingo Kirolak, Andoaingo Kulturak, Andoaingo Kirolak, Andoaingo Kirolak, Andoaingo Kirolak

# Zumba erakustaldia jaietan

San Juan jaien azken egunean, funky eta zumba erritmoek tokia hartuko dute Goikoplazan. Zumba Lokura taldearen eskutik helduko da Zumbaton saioa

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Dantza saio erraldoia iragarri dute Goikoplazako pilotalekuko oholtzan, 19:15etatik aurrera. Lehenbizi, La Salle Berrozpeko eta Klaap Dantza eskolako partaideek funky dantzaz osatutako ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, Zumba Lokura akademiaren ordua iritsiko da. Lau irakasle eszenategira igo eta plazan biltzen den jendea dantzan jartzen saiatuko dira, zumba estiloa nagusi izanda. 'Zumbaton kale ikuskizuna' deitu diote.

Itziar Lopez de Etxezarreta da irakasle horietako bat. "Gure akademiara datozen kide askok hartuko dute parte, baina ahalginduko gara plazara hurbiltzen den edonor mugi arazten. Jarraitzeko oso erritmoa errazak direnak entzungo dira plazan,

eta edozein adineko jendearentzat egokituak".

"Tartetxo batean gorputza astinduz dibertitzeko gogoia edukitzea da eskatzen dugun bakarra". Horrenbestez, Lopez de Etxezarretak edonori luzatu dio gonbitea Goikoplazara azal dadin. Gainera, gozatzeko gogoia edukitzeaz gain, bigarren arrazoa aipatu du, umore puntu batez: "San Jaun jaien azken egunean izango da Zumbaton saioa, eta aurreko egunetan pilotutako bestondoa arintzeko ere aproposa izan liteke". As-tearte ilunabar gauerako plan polita proposatu du Lopez de Etxezarretak: "Gurekin izerdia pittin bat bota, toallaren batekin lehortu, ondoren datorren Triana dantza taldearen emanaldia ikusi, ondoren ogitartekoren

bat jan inguruko tabernaren batean, eta azkenik, pirotekniazko kalejiran parte hartzeko abiatu Juanita Alkain plazara".

## Zumbaren sekretua

Erritmo latinoak eta ariketa aerobikoa uztartzen dituen zumbaren arrakastaz galdetuz gero, berehala erantzuten du Lopez de Etxezarretak: "Irakaslea edukita ez du zailtasunik segitzeko; jendeak segituan hartzen ditu erritmoa eta pausoa. Jakina, nork bere martxa dauka, bizkorrago edo motelago ariko da, baina garrantzitsuenak ondo pasatzeko gogoia eta irribarrea ezpainetan edukitzea da. Zumbara joaten den jendeak normalean ez dauka helburutzat forman jartzea. Gehiago izaten da burua saneatzeko asmoa. Egun osoan



Paola Gomez, Susana Alvarez eta Itziar Lopez de Etxezarreta, Zumba Lokura. AIURRI

daramagun estresa kentzeko eta barruko estuasunak askatzeko praktikatzan du zumba. Espeziala baita horretarako!"

## Zumba Lokura

Zumba Lokura taldeak akademia ireki berri du Kale Nagusian, trenbidearen ondoko lokal batean. 1992az geroztik itxita egon den Shanti Pub lokala egokitu du horretarako. Bertan, zumba praktikatzeko aukera eskaintzeaz gain, pilates, strong by zumba, shaka dance eta prestaketa funtzionala jorratzen dituzte. Nahi-

ko berriak egiten zaizkigun jarduerak dira azken hiruak, pixkanaka zabaltzen ari direnak jendartearen. "Prestaketa funtzionala gorputza tonifikatzeko eta bikortzeko ariketatetan oinarritzen da; zirkuitu bat prestatzen da hainbat elementu erabiliz. Strong by zumbak ere tonifikazioa du helburu, baina horretarako soilik gorputza erabiltzen da, elementu laguntzailerik gabe". Shaka dance (erritmo afroak, jamaikarrak, latinoak eta hip-hop-a biltzen dituen jarduera dela esan daiteke.

**ACADEMIA IDIOMAS  
G.F ANDOAIN**  
Tel.: 943 591 508

Cambridge English  
Exam Preparation Centre

*Ondo pasa Sanjuanetan!*

[www.academiagfandoain.com](http://www.academiagfandoain.com)

- Udako ikastaro trinkoak uztailan eta abuztuan.
- Ikastolako taldeak (EKI metodologia).
- 2018-19 ikasturterako izen-ematea zabalik.

**IZAN KONFIANTZA GUGANI!**  
Galardi 10, 1A  
etorri edo delitu

**Nemux**  
AUDIOVISUALES

**IKASTAROAK**  
Soinua & bikoizketa

**AUKERAK ETA DATAK:**

- Hastapeneko ikastaro trinkoa (astebete/10 ordu) Abuztuak 27-irailak 7.
- Udazkeneko ikastaroa (12 aste/48 ordu) Irailetik abendura.

**943 104 166**  
[www.nemux.es](http://www.nemux.es) | [info@nemux.es](mailto:info@nemux.es)

**Gora Sanjuanak!**

*Facuri Beltz*  
Taberna

Kale berria 9. Andoain. 943 59 35 49

**Zabala**  
Ordukari Bitxitegia

Ondo pasa Sanjuanetan!  
Kale Nagusia, 14  
☎ 943 593 745  
Andoain

Gudari enparantza, 5  
☎ 943 332 341  
Hernani

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ORAIN GIPUZKOA**



Aierbeko pasabidea zabalik izango da San Juan jaietan. AIURRI

## Aierbeko pasabidea jaietan zabalik izango da

Auto gidarientzat pasabide alternatiboa izango da, Goikoplazako eremua jaietan itxita izango baita

### Erredakzioa ANDOAIN

Oharra jaietan kotxean etor daitezkeen inguruko herrietako gidariei eta baita herrian bertan jaietan kotxean ibiltzeko ohitura duten gidariei: San Juan jaietan ez da Goikoplazan inguruan kotxez ibiltzerik izango.

Beterrri-Buruntza eskualdetik datozenek Leizotz aldeko Erroitx kaletik egin beharko dute sarrera eta irteera. Tolosaldeetik datozenek Bertxin kaletik igo ahal izango dira Goikoplazara, eta Aierbeko pasabidetik behe-za Zumea plaza aldera jaitsi.

## San Juan sua udaletxeko balkoitik ikusteko aukera

Astelehen eguerdian San Juan sua udaletxeko balkoitik ikusteko izena eman zutenen arteko zozketa egin zuten. Hauexek izan dira zozketaren irabazleak: Sergio, Edurne Gaston, Sebastián Bianchi, Maddi Idigoras eta Josefina Zurbano. Hauetako bakoitza beste pertsona batekin joan ahal izango da suaren ikuskizunaz gozatzen.

## Udal ikastaroetako lanak ikusgai Urigainen

Pintura, egur taila eta eskulanak tailerretako ikasleen lanak Urigainen izango dira ikusgai, ekainaren 22tik 28ra. Lan horiez gain, jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira ere. Erakusketa zabalik izango da 18:00etatik 20:00etara. Ekainaren 23an arratsaldeko ordutegiari goizekoa gehitu behar zaio (10:30-13:30).



Errumania aldeko Cozonac jaki gozoa dastatu ahal izango da Andoainen.

## Munduko zaporeez gozatzeko aukera Goikoplazako azokan

Mundu osoko plater ezberdinak dastatzeko aukera izango da, Andoainen bizi diren etorkinen eskutik

### Erredakzioa ANDOAIN

Kultura eta Gizarte zerbitzuen lansailen eskutik, mundu zabal-eko jaki goxoez gozatzeko aukera izango da jaietan. Bizilagun-ekuek prestatutako platerak izango dira. Udalak dituen datuen arabera, Nikaraguako

92 lagun bizi dira Andoainen, errumaniar jatorrikoak 71 dira, Argeliakoak 49, Nigeriakoak 37 eta Irango bakarra. Ekainaren 24an, San Juan egunez, herrialde horietako jakiak dastatzeko aukera izango da Goikoplazako artisau eta janari azokan.

Ateak • Zokaloak • Armairuak neurritan  
Leihoak • Eskailerak • Zurgintza orokorra

**Joseba**  
Aroztegia

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

Sanjuan eta Sanpedro zorientsuak!

**KEINU**

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak (txapelak, marraletak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN  
637 283 224  
keinuandoain@gmail.com  
www.txapelasybordados.com  
www.txapelabordatuak.eus

VIII ITURZAETA PILOTA TIAPILETAK  
V. ITURZAETA PILOTA TIAPILETAK  
VIII ITURZAETA PILOTA TIAPILETAK  
VIII ITURZAETA PILOTA TIAPILETAK

**ELIZONDO**

FERRETERIA TABERNA

SANJUANAKI ZORIENTSUAKI

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria: 943590302 Taberna: 943592802

2019  
50  
urte

ondarreta ikastetxea  
ANDOAIN

LEIZARAN  
INSTITUTUA

JAI ZORIENTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Frontoia jaietako gunea

San Pedro egunaren bezperan udaletxeko arkupeetako finalak jokatuko dira. Biharamunean, jaietako egun handian, haurren arteko arkupeko txapelketa

## Amaia Senperena ASTEASU

Haur mailako pilotarientzat Eguberriak eta Sanpedroak hitzordu seinatuak izan ohi dira. Ondotxo daki hori Antton Elizegi pilota eskolako kideak.

## Haurrek ondo gogoan dituzte urteko bi hitzordu nagusiak.

Bai, urtean zehar bi txapelketa ezberdin antolatzen ditugu. Bata jaietarako eta bestea gabonetarako. Gabonetako txapelketa normalean motzagoa izaten da, oraingoa apirila-maiatza aldera hasten da. Oraingoak beste bizi-tasun bat du: Frontoian frontenisa, arkupean eskupilota...

## Zenbat urte dira dagoeneko?

Arkupekoa duela hamabi urte abiatu zen, pala eta eskola kiroleko partidak ere aspaldikoak dira. Berriena Gaztetxeak antolatzen duen palarena da. San

Pedro egunez, soka dantza eta gero, eskola mailako finalak jokatuko dira elizako frontoian.

## Herritar asko gerturatzen al da?

Bai, normalean jendea herritarrek parte hartzen duten ekin-tzetara gerturatzen da. Herrikoez gain, ingurukoak ere animatzen dira horrelakoetan.

## Zeintzuk dira antolakuntzan dabil-tzan eragileak?

San Pedro jaietako partida ezberdinak herriko elkarteek antolatzen dituzte: Pala partidak Aiztondo txirindulari elkarteak, frontenis partidak eta arkupekoa Gaztetxeok Eskola Kiroletik. Horrelako ekitaldiak antolatzeak herriko eragileen arteko harremanak sustatzeko edo indartzeko balio dutela uste al duzu?

Bai. Azkenean guztion artean, parte-hartzaile izan eta antola-

tzaile izan, herri giroa sortzen da eta hori oso polita da.

## Partida hauetan asteasuarrek soilik hartzen al dute parte?

Jaietako partidatan bai. Herriko jendeak izena ematen du eta amaieran sariak banatzen ditugu. Frontenis taldeko irabazleek, adibidez, herri afarirako txartelak irabaziko dituzte.

## San Pedro jaietan zein garrantzia dutela esango zenuke?

Herrikoez gain, inguruko herriko jendea ere finalak ikustera

## HOGETA BOST NESKA IZENA EMANDA DAUDE ATZAPAR PILOTA ELKARTEAN



Antton Elizegi herriko pilota eskolako ordezkarietakoa da. AIURRI

gerturatzen dela esango nuke. Finala jaietan jokatzeak bere xarma du, finalera iritsi ez bada ere finala ikustera eta animatzera hurbiltzen dira gehienak. Horri esker guztion arteko giro polita sortzen da.

## Neskek ere parte hartzen al dute?

LHko 5-6. mailako eta DBHko 1-2. mailako 25 neska izena emanda daude Atzapar pilota elkartearen. Palan ere neska helduagoak parte hartzen hasi ziren. Baina, zoritxarrez, azken hauek aurtengo jaietako partidatan parte hartzera ez dira animatu.

## Zer esango zenieke inguruko zein herrikoei pilotazaleei?

Asteasuko jaietara animatzeko, festak ez baitira asteburura mugatzen. Hori baino gehiago badagoelako, gurera hurbiltzen anima daitezela.

## PARTE-HARTZAILE ETA ANTOLATZAILEEN HERRI GIROA SORTZEN DA ETA HORI OSO POLITA DA

**Ormazabal**  
GARRAIOAK

**Iker Ormazabal S.L.**

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

Tel. 680 365 181  
Zilar kalea, 2 - ASTEASU

**ERAIKUNTZAK - ASFALTOAK**

**BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.**


*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

Elizmendi, 44  
20159 Asteasu  
Tel./Faxa: 943 690 178  
bixenteotegi@bixenteotegi.com



PIEZEN MEKANIZAKETA ETA MUNTAKETA

**TXORTU** Lantegiak, S. Koop.



Tel: 943 691 779 Faxa: 943 693 387

Asteasuko industrialdea,  
A gunea, 9. Zbk. 20159 ASTEASU

*Gora Sanpedroak!*

# Rock doinuak Asteasun

Willis Drummond eta Liher rock taldeek zuzeneko bizia eskainiko dute ekainaren 30ean. Asteasura joan-etorria egiteko gaueko bus zerbitzu berezia eskainiko dute

## Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotan taldekide gehiago izan badituzte ere, egun Willis Drummond Jurgi Ekiza kantaria eta gitarra jolea, Xan Bidegain baxu jolea eta Felix Buff baterijolea dira. Euskal Herrian barrena "Tabula rasa" diskoa aurkezten ari dira, eta kantu berrienak eta ezagunenak eskainiko dituzte ekainaren 30ean Asteasuko plazan. Rock indartsua, horrela definitu daiteke Lapurdikoen musika. Maila handiko musikariak dira hirurak, urteotan egitasmo ezberdinetan parte hartzeko tartea aurkitu dutenak.

Willis Drummond taldea izango da, beraz, aurtengo jaietako izar nagusia. Aurreko urteetan Sutagar, En Tol Sarmiendo edota Vendetta taldeak aritu dira



Bidegain, Ekiza eta Buff Willis Drummond taldeko hirukotea.

zuzenean, Asteasuko San Pedro jaietan.

## Gaua osatzeko Liher taldea

Libe Hernando abeslari eta gitarra jolea buru duen donostiar

jatorriko taldea han eta hemen ari da 'Tenpluak erre' diskoa aurkezten. Bi taldeen estiloa ezagututa, kontzertu elektrikoa izango da. Gitarrak zorrozuta iritsiko dira talde biak.



Asteasuko bus zerbitzua Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta eta Tolosara iritsiko da.

## Gaueko bus zerbitzua eskualdetik Asteasuko jaietara

Asteasu eta eskualdea elkar lotzen dituen bus konpainiak gaueko zerbitzu berezia eskainiko du

## Erredakzioa ASTEASU

Inguruko herrietako festazaleak arriskurik hartu gabe Asteasuko jaietara autobusez hurbildu ahal izango dira, ekainaren 30etik uztailaren 1era doan gauan. Eta behin parranda edo gualdia igarota, autobusean itzuli ahal

izango dira berriro Zizurkil, Villabona, Irura, Anoeta eta Tolosara. Azken urteotan mugikortasuna errazteko hartutako neurria izan da. Festazaleak erakartzeko helburua du, eta baita etortzen diren horien segurtasuna bermatzea ere.



Gora Sanpedroak!  
Ondo pasa jaietan!

ADOS MUNTAIAK, S.L.  
Asteasuko Industrialdea  
A gunea-15, 20159 Asteasu  
Tel.: 943 694 384  
Faxa: 943 694 375  
info@adosmuntaiak.com  
www.adosmuntaiak.com

Festak ondo igaro

OGI ZURI  OGI GOXO

OKINDEGIA, S.L.

Lizarra-etxea, 32. Elizmendi. ASTEASU. 943 691 896

OGI-ZURI

Bulandegi bidea, 1-3. ZIZURKIL. 943 691 000

OGI-GOXO

Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA. 943 693 294

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua



Ondo pasa jaietan,  
ingurua zainduz,  
bizilagunak  
errespetatuz

Zatoz  
Asteasuko jaietara



Asteasuko Udala

# Azken txanpan, desafioa

Egunez eta gaez jaiez gozatu ostean, jaiei amaiera eman aurretik, lagunarteko herri kirol lehia parte hartzera animatzen direnek gogotik izerditu behar izaten dute

## Amaia Senperena ASTEASU

Herrikideak parte-hartzera animatzea da, eta partaide bakoitza kirol jarduera ezberdinean kokatzea izan da azken asteetan Jon Flores eta Aitor Irazu gazteen zeregin nagusia. Bien artean daramate jai egitarauaren azken eguneko ekitaldi ikusgarrienaren ardura.

### Zer nolako lana egin duzue aurten-go Herri kirolen antolaketan?

Jon Flores: Orain dela hiru urte pasa ziguten lekukoa eta biok hasi ginen antolaketa lanetan. Normalean hiru aste lehenago hasten gara guztia antolatzen.

### Ze proba izango dira aurten?

Aitor Irazu: Zailtasun gehien dutenak, abilezia eskatzen dutelako, sega, trontza eta aizkora izango lirakeke. Horiez gain, harriaren proba, lokotxak, txin-



Aitor Irazu eta Jon Flores asteasuarrak. AIURRI

ga, zaku karrerak, korrika eta kontrabandoa deritzona. Iaz jendeari asko gustatu zitzaion proba sartu genuen, karretilarena. Barruan kide bat eta tiraka bestea jarrita, soroari buelta eman behar zioten.

### Asteasuarrak bakarrik hartzen al dute parte herri kirolean?

Aitor Irazu: Bai, lehenasuna herrikideok dugu. Igande arratsaldean izatean batzuetan jendea bilatzea kostatzen zaigun arren.

Jon Flores: 17-25 urte bitartekoak izan ohi dira, trontzan edo aizkoran adina zertxobait igotzen bada ere.

### Herri kirolean parte hartzeak aurre prestaketa bat al dakar?

Aitor Irazu: Txingn, lokotxak edo korrika edozeinentzat proposa izan daiteke. Trontzan, segan eta antzeko probatan ateratzeko aurre prestaketa bat beharrezkoa da.

### Jeneroa kontutan hartzen al da?

Jon Flores: Probak mistoak izan daitezten saiatzen gara beti.

Aitor Irazu. Lehenengo urtean kostatzen zen, baina behin animatu zirenean emakumeengana jotzea errazagoa izan da.

Bidea zabalduko duten kideak behar dira, atzetik besteek bide horretan jarrai dezaten. Aurten-goan kirol jarduera guztietan emakumezkoak zein gizonezkoak ikusiko ditugu.

### Sanpedroetan zein leku hartzen du herri kirol desafioak?

Jon Flores: Inguru guztiko jendea biltzen duen ekitaldia da. Lagunartekoa izateko jende asko biltzen da. Jendeak gure kontura barre pixka bat egiten du, guztiok disfrutatzen dugu.

### Antolatzaile izateaz gain, parte hartzaile izango al zarete?

Jon Flores: Bai, eta antolatzaileak gu garenez gustuko probak banatzen dizkiogu elkarri.

### Kanpoko norbaitek parte hartu ahal izango luke?

Aitor Irazu: Ahal den bitartean, herriko parte hartzaileekin jarraitzea da asmoa.

## HERRITARREN ARTEKO HERRI KIROL LEHIA UZTAILAREN 1EAN IZANGO DA, 18:00TAN HASITA

**Iturri-Ondo**  
Jatetxea  
Jai zoriontsuak igaro  
Tel.: 943 691 331  
ASTEASU

**Lur**  
Fisioterapia  
Pilates Zentroa  
Ixiar Igerategi Lizarribar  
Gora Sanpedroak!  
Denak pol. zb. 207  
Andoain  
Tel.: 943 592 851  
605 763 940

Okindegia - Kafetegia - Gozotegia  
**KABELA**  
ONDO PASA JAÏETAN!  
Nagusia, 3 - Tel.: 943 696 405 - ASTEASU

**ATERPEA**  
Ate industrialak eta garajeetako instalazio eta mantenimenduak  
Tel 943 696 863 Faxa 943 692 639  
Pete Sagasti industrialgunea, 91-behea. 20159 ASTEASU  
gestion@aterpea-mantenimientos.com  
www.aterpea-mantenimientos.com

# Gazteak dantzarako prest

Herriko dantzari gazteek saioa eskainiko dute San Juan bezperan, jaien atariko ekitaldian. Oinkarirekin aritu dira urte osoko prestakuntza lanetan

**Amaia Senperena** ASTEASU

**Zenbat denbora daramazue euskal dantzatan murgilduta?**

Araia: Bost edo sei urte genituenetik. Oinkari dantza taldearen saioetara oso gustura etorzen gara.

**Emanaldi asko egiten al dituzue Oinkarirekin batera?**

Araia: Orain gehiago. Hasi ginen urtean bi emanaldi egiten genituen.

**Zer dela eta hasi zineten dantzari?**

Araia: Asteasun beti egon da dantzarako tradizioa eta inguruko ia denek dantzatzeko zute- la ikusirik, guk ere euskal dantzak dantzatzeko hastea erabaki genuen.

**Herritar asko ari zarete, beraz**

Beñat: Lehen askoz ere asteasuar gehiago ginen. Kopuruan jaisten ari da.

**Zer da gehien gustatzen zaizuena?**

June: Niri euskal dantza tradizionala eta modernoa uztartzen dituen.

**Dantza garaikideari heltzen diozue orduan?**

June: Uztarketa bat da. Dantza tradizionalan pausu modernoak sartzen dituzte, eta hori da gustatzen zaidana. Bi estilo horiek nahasten direnean.

**Ez zarete dantzari bakarrik aritzen.**

**Inguruko herrietakoak gehiago ezagutzeko modu bat dela esango zenukete?**

Alaia: Orintxe bertan guk Asteasuko bertako jendearekin dantzatzeko dugun soilik. Baina datorren ikasturtean aurrera Villabonara joateko inguruko jende gehiago ezagutzen eta lagun berriak egiten lagunduko digu.

Beñat: Hamalau urterekin egingo dugu aldaketa, DBH2 mailan hastera goazenean alegia. Aldaketa horrekin, gainera, dantza eta emanaldi gehiago egiten hasiko gara. Gogotsu gaude.

June: Kanpoan egiten diren euskal jaialdietara joateko aukera izatea gustatuko litzaidake etorkizunean.

Adin tarte batetik aurrera gure euskal dantzak Euskal Herrietik kanpora ateratzeko aukera izango dugu.

**ASTEASU, LARRAUL ETA ADUNAKO DANTZA ESKOLEN SAIOA EKAINAREN 23AN IZANGO DA**



Beñat, Araia eta June dantzari gazteak. AIURRI

**Patxine jatetxea**

Ondo pasa festetan!

Gure berezitasuna:  
EUSKAL SUKALDARITZA  
ETA ETXEN POSTREAK  
Errementari, 1 - ASTEASU  
Tel.: 943 69 10 25

ENVASADOS

**skinter, s.**

Industrialdea, 46-47 (B gunea), 212 p.k.  
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)  
Tel. 943 69 01 99 - Faxa: 943 69 31 67  
skinter@skinter.eus | www.skintersl.com

Ondo pasa Asteasuko jaietan

**asmek**

Ondo pasa jaietan!

Industrialdea, B Gunea, 38  
20159 Asteasu  
Tel.: 943 692 230. Faxa: 943 690 899  
asmek@asmek.es www.asmek.es

ONDO PASA JAIETAN

**Goine**  
esneki naturalak

GURE PRODUKTUAK

- Goxoto "katzur krema"
- Marmite
- Gaztazarsa
- Gazta txikia
- Gazta freskoa
- Gazta zurpe
- Denokiko kiuzabailga gazta ketua
- Logurta basafritu eta marrulekin
- Logurt naturala eta azukerretan

SASKAGOIN KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA - Gorua  
Goiena baserria, 2/g - 20159 ASTEASU  
Tel.: 647 697 535 / 615 296 613 saskagoin@gmail.com

Ondo pasa festetan!

**RANSPORTES akunza**

Eguneroko zerbitzua Bizkaira, Iruñeara eta Gasteizera

609 434 910 - 609 401 884. Tel.: 943 693 212 - Faxa: 943 694 924  
www.transporteslakuza.com - info@transporteslakuza.com  
A Industriegunea - 16. pabilloa, 20159 ASTEASU  
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

# SANPEDROAK ASTEASUN



## EKAINAK 23

### LARUNBATA

**18:30** Dantza emanaldia frontoian, Oinkariko ikasleen eskutik.

**21:00** San Juan sua.

## EKAINAK 27

### ASTEAZKENA

**22:00** Mus eta txintxon txapelketak frontoian. Bikotekide batek Asteasun erroldatuta egon behar du.  
**21:30** Izen-emateak.  
**22:00** Zozketa.  
**22:05** Txapelketen hasiera.

## EKAINAK 28

### OSTEGUNA

**11:00** Haur txupinazoa, krosa eta marrazketa lehiaketa.

**12:00-14:00 / 15:00-17:00**  
Haur parkea frontoian.

**14:00** Haur bazkaria.

**17:30** Arkupeko eta pala txapelketako finalak.

**19:30** Txupinazoa eta kalejira.

**22:30** Bertso saioa plazan: Andoni Egaña, Agin Laburu, Maialen Lujanbio eta Haritz Mujika. Ondoren Izer eta Alabier, Laja eta Narbaiza.

## EKAINAK 29

### OSTIRALA SAN PEDRO EGUNA

**10:00** Diana.

**11:00** Meza nagusia. Ondoren Elizmendirin soka dantza, hamaiketako eta Asteasuko pilota eskolako txapelketako finalak: Aurrebenjaminak eta benjaminak.

**18:00** Kalejira herriko musikariek, buruhaundi eta erraldoien parte hartzearekin.

**21:30** Herri afaria. Ondoren, Laket taldearekin erromeria.

## EKAINAK 30

### LARUNBATA

**11:30** Meza eta hamaiketako Aitzondo elkartean.

**13:00** Herri kirolak plazan. Koadrilen triki-poteoa.

**14:30** Koadrilen arteko bazkaria.

**14:30** Jubilatuen bazkaria frontoian: Telleria eta Lizaso bertsolariak, Izer eta Alabier.

**16:30** Zezen txiki eta poneyak.

**18:30** Sakatu elektrotxaranga.

**23:30** Liher eta Willis drummond. Ondoren Djak txosnatan.

## UZTAILAK 1

### IGANDEA

**11:00** Patata tortila txapelketa.

**12:00** Pilota txapelketetako finalak: Eskupilota eta pala, alebin mailako neska-mutilekin.

**13:00** Sagardo dastaketa. Sagardotegiak: Sarasola, Etxeberria, Zabala, Aburuza eta Urdaira.

**18:00** Herrikoen arteko herri kirolak.

**19:30** Trikitixa eta pandero eskolaren saioa.

**21:00** Sorginaren igoera.

Tel: 943 694 220  
638 669 623

WhatsApp:  
607 464 033

trafico@ttesisurzun.com

SAN PEDRO JA I ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU!

gozotegia

arruti

Gora Sanpedroak!

Zumea 18, 943 593 777  
ANDOAIN  
arrutigozotegia@hotmail.com

**ZUBELDIA e.s.**  
ARRAIN ETA MARISKOA

Ondo pasa jailetan!

Ernio bidea, 28  
Zizurkil  
943 69 40 48

pescadoszubeldia@euskalnet.net

montai  
PRODUKZIOAK S.L.

Tel.: 943 69 18 41 Faxa: 943 69 60 57  
montai@montai.eus www.montai.eus

Asteasuko Industrialdea, A gunea, 29. Zb.  
20159 ASTEASU. GIPUZKOA

Zure ekitaldirako behar duzun guztia...

- Agertokiak.
- Forma eta tamaina desberdinetako karpak.
- Mahai, aulki eta bestelako osagarriak.
- Hesi mota desberdinak.
- Kirol frogetarako helmugak, banderolak, etab.
- Soinu eta argiztapena.
- Truss egiturak eta dorreak.

Gora Sanpedroak!

MECANOCAUCHO

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

Industrialdea Parc. 35 A  
E-20.159 ASTEASU - Gipuzkoa  
Tel.: 943 696 102 - Faxa: 943 696 219